

Xabia, historiadun itsasoa.

Xabia-ko badia bere ur lasai eta gardenengatik da ezaguna.

El Tangò, Cap Prim eta *Portixol* uharteak edozein urpeko gidaliburutan agertzen diren tokiak dira, bertako hondo ederrak eta fauna eta flora aberatsak urpeko kirolarientzat oso erakargarriak baitira.

Baina haratago doa Xabia-ko hondoen balioa.

Antzinatean, badia hau toki estrategikoa izan zen. Garai hartan maiz erabiltzen baitzen 38. paraleloari jarraitzen zion itsasbidea, Balear uharteak Iberiar Penintsularekin batzen zituena. Feniziar itsasturiek garatu zuten izarren behaketan oinarritutako nabigazio sistemaren arabera, ontzien ibilbidea latitudeari egokitzen zitzaion, *phonike* bezalako izarrei esker.

2005. urtean, Xabia badian ur azpiko aztarna arkeologikoak aurkitzen saiatu ziren arkeologoak, ur azpiko arakatze tekniken bidezko prospekzioa eginez.

Urpeko arnasmailuak erabiliz ikerketa jarraitzeak zein ingurutan mereziko lukeen erabakitzea zuten xede.

Aldameneko ekortze sonarrak erabili zituzten, eta horrela hainbat irregulartasun aurkitu zituzten hondo hareatsuetan.

Horietako batzuk azterketa mereziko luketen kroskoak ziren, zalantzarik gabe.

Prospekzio kanpainaren amaiera puntu gisa, zurrumurru batzuen arabera erromatar garaiko kobrezko lingoteak legez kanpo erauzten ari ziren inguru bat ikuskatu ahal izan zuten arkeologoek.

Benetan aztarna arkeologikorik ote zegoen jakin nahi zuten.

Alabaina, kroskoa zeharo ebatsita zegoela besterik ezin izan zuten egiaztatu.

Lapurrek bidean galdu zuten zenbait hondar errekuperatu eta azalera eraman zituzten.

Errekuperatutako piezen artean, erromatar garaiko kobrezko lingote bat, jatorriz gaurko Andaluziakoa, olioia zamatzeko erabiltzen ziren anfora batzuen hondarrak eta itsasontzi baten xukatzeko ponparen berunezko hodiak aurkitu ziren.